

Vitoria-Gasteizko Orkideen Kontserbazio Programan laginketak burutzeko landa-gida

Laginketen egunean soinean eramateko eta pausu garrantzitsuenak gogoratzeko asmoarekin idatzi dugu dokumentu hau.

Materiala

Esfortzu fisikoko lana ez izan arren, gure partzelaren kokapenaren eta topatzen ditugun orkidea kopuruaren arabera, laginketak aurrera eramateak distantzia handiak ibiltzea eta hainbat orduetan kanpoan egotea dakar.

Hori dela eta, Ataritik laginketak ez gutxiestea eta ondo prestatuta joatea gomendatzen dizuegu.

Laginketaren egunean zurekin eraman beharreko materialaren lista txiki bat burutu dugu, beharrezkoak eta gomendagarriak direnak bereiziz:

Beharrezkoak

1. Argazki kamera edo kamera duen telefono mugikor bat.
2. Landa-fitxa behaketak idazteko.
3. Arkatza eta borrhagoma orkideen espeziea eta kopurua idazteko.

Gomendagarriak

1. Orkideen gida bat behaketen identifikazioa egiteko. Atarian mailegu moduan eskuragarri daude kontserbazio programako parte hartzaileentzat.
2. Laginketa egunerako arropa aproposa: oinetako erosoak, eguzki krema, eguzki betaurrekoa, etab.

Orkideen laginketa

Toki zehatz batera (partzela) joateari eta bertan dauden orkidea espezieak identifikatzea eta haien zenbaketari deitzen diogu laginketa bat egitea. Arrazoi honengatik oso garrantzitsua da guk aukeratutako edo guri Orkideen Kontserbazio Programaren barnean egokitutako partzela lagintzea. Beste esparru batean orkidearik aurkitu ezker, hauek ez dira gure partzelan topatutako behaketa bat bezala hartu behar. Behaketa hauek programaren barruan sartu nahi ezker koordinatzaileari eta Atariko Lantalde Teknikoari jakinarazi beharko zaie.

Orkideen laginketerako xehetasun teknikoak

Ataritik behaketen ahalik eta argazki gehien ateratzea gomendatzen dugu. Argazki hauek gure behaketaren froga fisikoak dira eta azken heinean gure identifikazioa zuzen egin dugunaren testigantza. Gainera, oso lagungarriak dira behatzen ari garenaren ziur ez baldin bagara, argazkiek programako koordinatzaileari orkideen identifikazioekin laguntzeko aukera ematen baitio. Horretaz aparte, 1. Irudian ikusi dezakegun moduan, landarearen parte desberdinen argazkiak hartzea ere

gomendatzen dugu.

Laginketan zehar gure partzela barruan espezie bakoitzaren gutxi gorabeherako kopurua estimatzea ere eskatzen dugu. Horrela espezien eboluzio tenporala mehatu daiteke eta aldagai desberdinekin erlazionatu.

Laginketa bakoitzerako prestaketa egokirako, laginketa egunerako Checklist bat sortu dugu. Bertan, laginketa bat gauzatzeko item garrantzitsuenak aipatzen dira.



1. *Irudia*. Programaren hainbat parte hartzailek hartutako orkideen parte ezbardinen bost argazki. A, populazioa (María Jesús Urteaga). B, lorearen xehetasuna (Pedro Novella). C, orriak (Brian Webster). D, infloreszentzia (Clara Báñez). E, landare osoa (Pedro Novella).

Con la colaboración de:



Gure behaketen digitalizazioa

Langinketa bezain garrantzitsua gure behaketen digitalizazioa da. Gaur egun, badira hainbat modu digitalizazio hau burutzeko eta Ataritik uste dugu digitalizazio honek abantaila ugari dituela artxibo tradizionalarekin konparatuz.

Interneten aurki daitezkeen plataforma kolaboratiboei esker, etxetik irten gabe gure behaketak beste parte-hartzaileen behaketekin batu ahal izango ditugu Orkideen Kontserbazio Programaren barruan!

Honetaz aparte, plataformek hurrengo abantailak eskaintzen dituzte:

- beste erabiltzaileei esker gure behaketak berresteko aukera;
- guri interesatzen zaizkigun beste animalia edo landareen behaketak miaztea, Vitoria-Gasteizen zein munduko beste edozein partetan;
- programako koordinatzaileari lana erraztea datu-basea sortu eta analisi lanak egiterako orduan.

Honengatik guztiagatik parte hartzaile guztioi animatu Natusfera moduko plataformak erabiltzera nahi zaituztegu. Herritarren Zientziako Orkideen Kontserbazio Programaren web orrian aurkitu dezakezue Natusfera plataforma erabiltzeko protokolo bat.